

itzulpena: Rikardo Arregi

# Jorge de Sena





**Munduko  
Poesia  
Kaierak**

# **Jorge de Sena**

itzulpena: RIKARDO ARREGI

 **Susasa** literatura

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.

Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:

<http://susa-literatura.com/ebook>

© Jorge de Sena

© itzulpenarena: Rikardo Arregi

© edizio honena: Susa

2015eko urria

Munduko Poesia Kaierak

bildumaren zuzendaria: Beñat Sarasola

<http://kaierak.com>

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz

Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea

Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu

Telefonoa: 943 83 26 55

Elektroposta: [susalit@armiarma.eus](mailto:susalit@armiarma.eus)

Webgunea: <http://susa-literatura.eus>

Bilduma honen izenaren neurri ona ematen du Jorge de Senaren poesiak. Ez bakarrik XX. mendeko portugesezko poesia obren artean nabarmenetakoa dugulako, baizik eta mundu zabaleko leku, giro eta pertsonaiak mukuru dagoelako. De Senak berak han-hermenka ibili behar izan zuen 1919an Lisboan jaio, Antonio de Oliveira Salazarren diktadura kari Brasilera erbesteratu, eta Estatu Batuetako Santa Barbaran hil zela 1978an.

Urtetan Portugalen ingeniari lanetan ibili ostean, literatura irakasle jardun zuen hala Brasilen nola Estatu Batuetan, eta batez ere tradizio frantses eta anglosaxoiko autoreak lusofonian zabaltzen aritu zen. Adibidez, bilduma honetako beste autore bat itzuli zuen portugesez: Emily Dickinson. Horretaz gain, Portugalako literaturako kritikoa entzutetsua izan zen, Camoesi eta Pessuari buruzko zenbait saiakera argitaratutakoa besteak beste. Hala, Pessoren nazioartekotzearen arduradun garrantzitsuenetakoa dugu, Estatu Batuetako mundu akademikoan hedatzeko egin zuen lanagatik. Nobel saria jasotzeko hautagai indartsua urtetan, zaputza hartu zuen 1977an Vicente Aleixandreri eman ziotenean. *Diario Popular*-en ar-

tikulu aski mikatza idatzita adierazi zuen bere desadostasuna: “Vicente Aleixandre edo ezdeusen Nobela”.

Bere poemetan argi geratzen den bezala, ikuspuntu aski kosmopolita eta humanista zuen. Humanismo horri marxismoaren hainbat irakasgai atxikitzen zizkion, *Hilobi bat Londresen* poeman azaltzen zaigun moduan. Salazarren diktadura eta hura sostengatzen zuen nazionalismoarekiko arbuioaren adibide da *Ekumenismo lusitaniarra edo herritartasun bikoitza* poema, non aditzera eman zituen brasildarrek portugaldartzat hartzearen eta portugaldarrek, berriz, brasildartzat hartzearen nekeak. Aberriarekiko, Europarekiko, eta oro har, gizateriarekiko kezka jarraia ageri zuen poemetan; Kretan nahiago zukeen egon minotauroarekin, egokitu zitzaion mundu aldrebesean baino: “*Kretan, Minotauroarekin, / poemarik gabe eta bizitarik gabe, / aberririk gabe eta espiriturik gabe, / ezer gabe, inor gabe, / hatz zikina izan ezik, / nire kafea bakez hartuko dut*”.

Aipuak, bidenabar, Jorge de Senaren poesiaren beste ildo garrantzitsu baten berri ematen digu, klasizismo moduko batena alegia. Izan ere, etengabe dialogatzen zuen hura baino aurrekoagoak ziren poe-

tekin (Camoës, Manuel Bandeira) edo antzinatearekin. Sarritan, museoren batean ikusitako piezaren batek (Rembrandt, Goya), filmen batek (Potemkin korazatua) edo entzundako musikaren batek (Scarlatti, Schubert, Chopin) jartzen zion poema idazten haste-ko puntua. Sorta horren artekoa da Sophia de Mello-ri eskainitako poema. Adiskide izan ziren eta biek izan zuten antzinatearekiko mira, nahiz eta De Mello-rena askoz ere klasizismo jarrai eta kanonikoagoa izan zen.

Jorge de Senaren hainbat poesiatako gorputzaren irudikatzea ere haren obrako alderdi behinenetakoa dugu. Erotismoa baliatzen zuen baita gizartearen zurruntasun morala pitzatzeko ere. Hor dugu esaterako biluztasunari buruzko poema, edo haren azalaren ko-dearen berri ematen digun lerroa: *“hi haiz bizi naizen lurra”*.

Obra poetiko zabal eta askotarikoa argitaratu zuen Jorge de Senak. Haatik, bere poesiaren ezaugarri komun bat aipatzearren, haren indarra azpimarra daiteke. Berehalakoan kolpekatzen duten poemak izaten dira bereak, intentsitate poetiko handia dutenak (irakur *Hau*). Poesiaz landa, beste zenbait generotako lanak (antzerki lanak, saiakerak, nobelak...)

argitaratu zituen halaber. Narratibazko lanen artean ezagunena da *Sinai de Fogo* (*Ke-seinaleak*) nobela autobiografiko amaitu gabea, hilondoan argitaratu zena.

Rikardo Arregik apailatu eta itzultitako antologia eder honetan poemak dataturik ageri zaizkigu (De Senak argitaratzea nahi zuen moduan) kronologikoki; *Distikoa* poema arte poeta bizirik zela argitaratutakoa, eta haren ondotik hilondokoak.

BEÑAT SARASOLA

---

# Zoriontasuna

Zoriontasuna leiho koskan eserita zegoen egunero.

Haur kontsolaezinaren hazpegiak zituen.

Oraindik inor maite ez duen

haur heldugabe bat,

atsegin zuen soilik eskuak geldiaraztea

edo ileaz astiro giza begitarteak doi-doi ukitzea.

Eta, haurra zenez,

misterio handi bat aurkitzen zuen bere izenean.

1941/4/13



---

# Suma Teologikoa

Ez nintzen urrutitik etorri, laztana, eta jaio nintzen  
egunean  
ez zen itsas zabalean itsasontzirik hondoratu.

Ez zen ezer aldatu. Gerrek jarraitu egin zuten,  
ogiaren prezioak igotzen,  
poetek jarraitu zuten, behin eta berriro,  
zutaz galdezka.

Egia da, orduan, jende asko  
misterioz zahartu zela bat-batean.

Baina hori ere, laztana, oraindik ez dakite  
nire erruagatik izan ote zen,  
edo nire garaian bertan jaio ziren  
besteen erruagatik.

1944/4/14

---

# Paradisua artifizialak

Ene lurrean ez dago lurrik, kaleak daude;  
mendixkak ere eraikuntza altuak dira,  
are altuagoak alokairuak.

Ene lurrean ez dago lorerik ez zuhaitzik.  
Parkeetako loreak, urriak bestalde, hilero aldatzen  
dituzte,  
eta udalak baditu zuhaitzak errotik ateratzeko  
makina berezi-bereziak.

Txorien kantuak —ez dago kanturik,  
3. solairuko kanarioak eta 5.eko papagaioak baino  
ez.

Eta haizearen musika hotza da hondakinen artean.

Ene lurrean, baina, ez dago hondakinik,  
Pertsian edo Txinan baitaude guztiak,  
edo herrialde esanezinetan.

Ene lurra ez da esanezina.  
Esanezina ene lurrean bizitza da.  
Esanezina esan ezin daitekeena da.

---

# Oda etorkizunerako

Amets bati buruz bezala hitz egingo duzue gutaz.  
Urrezko ilunabarra. Esaldi lasaiak.  
Keinu bareak. Musika leuna.  
Gogoeta zolia. Irribarre sotilak.  
Urrunduz doazen paisaiak.  
Aske ginen. Hitz egin, jakin  
eta maitatu egiten genuen nare eta eztiro.

Amets egingo duzue  
larrimin urtu, malenkoniatsu batekin.

Eta ekaitzak, istiluak, oihuak,  
indarkeriak, iseka, nahasmendu gorrotagarria,  
mendi mazela hurbiletan ezezagun  
hiltzen diren udaberriak, espetxeak,  
heriotzak, amodio saldua,  
malkoak eta borrokak,  
lapurtzen diguten bizitzaren etsipena  
— larrimin malenkoniatsu bat ozta-ozta,  
horren gainean urrezko aro bat amestuko duzue.

Eta isil-gordeka, saudadez beteta, liluraturik,  
amets bati buruz bezala gutaz — gutaz! — hitz  
egingo duzue.

1949/10/7

---

# Oda inoren konturako surrealismoari

Zer daramazu lepoan,  
transkripzio korapilatsuetan bilduta gaizki  
begiratuta amuarrain higuingarriak  
eta  
beste aurreiritzi batzuk?  
Apaiz bat? Katu bat? Herabetasuna?

Zer daramazu isilik, geldi, lo bezala, garbitzeko  
erabiltzen duzun parpailadun xal  
berdean: izerdia, esperma,  
gorozkiak, utzi, eskaini, saldu, bota,  
injektatu, deitu,  
gaitzetsi, deskribatu eta abar egiten  
duzun guztia?

Ez entzunarena egin, eta ez duzu erantzun.

Beldurra diezu poliziari, alfonbrei, lanpasari,  
telefonoari, ateko txirrinari, besteen  
arropa azpitik begira dauden kale  
bazterretako pertsona geldiei?

Beldurra diezu hitzei?

Beldurra diozu poemak, malkoak, ezkontzak,  
aldirietako orubeetan atsegin  
presakakoak ateratzeari?

Beldurra diezu alderdiei, iritzi artikuluei, bankariei,  
trapu-biltzaileei, inflazioari,  
urdaileko zein gizartearen ultzeri?

Zer daramazu lepoan  
isilean eta xal batean bilduta?

Bizitza al da? Argizko iragarkiak? Etxe merkeak?  
Itsasoa? Anai-arrebak?  
Errebindikazioak? Liburu bat?

Ez entzunarena egin, eta ez duzu erantzun.

Bizitza al da? Apaltzen ari den gaua? Urrutiko  
argiak? Keinu bat? Begirada bat?  
Margolan bat? Poema liriko bat?

*(Ezagunen bat iristean une egokian etena)*

1948/9/24

---

# Platano berriro bisitatuak

Zuhaitz eneak, zer esango dut zuetaz  
zuekin pentsatzean noizbait esan ez dudanik?  
Ikusi zaituztet orain eta gogoratuz ikusten dut  
zuengan

orduan esan nuena, zer esango dut?

Beste batzuk dira hostoak, adabegitsuagoak  
enborrak,

sustraiak atzapar kakotuen antzerakoagoak  
eta orbanak, zuen gorputz altuagoetan,  
ilunagoak eta goroldiotsuagoak.

Baina aldatu zarete, ez zarete berberak,  
berberak izanda ere zuhaitzak beti diren bezala —  
— ez da esatea: denbora zuen enborretan dago,  
nire gogoak egina soilik nire hitzetan.

Eta zuekin hitz egitea, galdera hauek  
zeinetan heriotzak nigan ezagutuko duena  
urrunduz baitoa geldigaitz gelditze larrian —  
— ez da hitz egitea: ihesean doan pentsamendua da,  
naizen bitartean bizitza bera ere geldiarazi nahi  
duena.

.....

Hitzak bezala, bat-batean ikusi zaituztet  
gutxiagotzen bizkor ikustearen ikusteaz  
ur argi bilakatu den zeruertz zehatzean  
murgilduta (oi, puntu beltzak, zenbat?)  
apurka itzaltzen den argi lauso  
eta kolorgean.

Zuhaitz eneak? Eneak? Zeintzuk?...

Zuhaitz eneak, zer esango dut nire buruaz?

1958/4/9



---

# Hau

Ez desira, ez galde, ez espero.

Bizitza bezala igarotzen ari den hau eta zuk egun, ordu eta minututan neurtzen duzuna, edo denbora bezala igarotzen dena eta zimur, oroitzapen eta zerbaiten irudipen lasai eta ilunetan, batzuetan irribarretsu, baina ilun, neurtzen duzuna; bai: *hau*, izenak ematen dizkiozun hau, sortu zen lekutik eta beste guztitik bereizten duzuna; hau, jadanik nahi ez duzuna, galderarik egiten ez dionzuna,

berarengandik ezer espero ez duzuna, baina nahi duzuna,

eta beti galdezka eta esperoan zauden hau; hau, zu ez zarena, zurekin ez doana, zuk alde egitean gelditzen ez dena; pentsatzen ez duzun hau,

zeren neurtzean neurtzen baituzu soilik eta neurtu baino ez baituzu egiten — hau soilik, ozta-ozta hau, hau bakarrik: ez desira, ez galde, ez espero, asko ala gutxi, gelditzen zaizun guztia baita.

---

# Esker ematea

Batzuetan, alaba lurrean ondoan dudala,  
begiak ixten ditut eskerrak emateko.

Baina berehala hasten da zezelka,  
ez dit hori ere onartzen.

Eta, apur bat goibel, poz-atsegin neurribako batera  
itzultzzen naiz.

1950/10/1

---

# Post-Scriptum

Ez naiz ni hezurak gordetzen zaizkien horietakoa,  
eta ez naiz hezurak edukitzeko garaiz gorde ez  
direlako  
kexatzen diren gerokoen gogoan egongo.

Era berean ez naiz ni estandarte izango diren  
horietakoa  
odolezko edo hitzezko borroketan,  
hala batzuek gorrotatua nola besteek maitatua.

Ez naiz halaber ahotsaz liluratzen duten horietakoa,  
gazte bakartiari xuxurlatzen ilun-argitan  
ametsetan izan dezakeen edertasun lausoa.

Ez naiz bederen tristen kontsolamendua izango,  
umiliatuena, bizitza osoa apurka-apurka  
traizionatuagatik amorratzen daudenena.

Ez, ez naiz baliogarria edo gelditzen den ezer,  
eta hilko naiz, hiltzean, neure buruarekin.

Bakar-bakarrik beldur handiz, une galduetan,  
bere buruaren eta guztien aurrean bestela bezala,  
jakinmin, poesia zein neurritan den bizitzaren  
maskara  
susmatzea onartu duenak irakurriko nau.

1954/5/27

---

# Iberiako gazela

*(Iberiako gazela, brontzezkoa, K. a. VII. edo VIII. mendeak, British Museum, ondres)*

Hiru hankatan eutsirik, lauretako bat galdu zelako, atsedean hartzen du, brontzezko, museoko oinarri diskretuan.

Belarriak tente, entzuten bezala, hankak mugimendu oraindik zalantzazko dira, begirada huts lausoa basoaren zarata sakabanatuetan galtzen den bitartean.

Aspaldian erori ziren zuhaitzak. Aspaldian, oroimenik gabeko denbora galduak, hil ziren herrixkak mendietan eta harriz harri haietan ezabatu.

Aspaldian inbasioek bortxatu zuten herri hau — zein? — eta odol, su eta esklabotasunean, edo agian lema luze eta bela garai bikoitzeko itsasontzietan iritsi ziren gizonen amodioan, lasai urtu zen, mendiak utziz ibarren truke, basoa utziz

labarren truke, itsasoaren hatsanka  
itsasadar otzan eta hondartzetan,  
iturri aratzak utziz landaretza artean  
sigi-saga doazen ibaien truke.  
Aspaldian, baina gazela honek dirau,  
muturra fina, soina leuna  
eta bular-arteia ia-ia gizatiarra. Jainko bati  
eskaini zioten agian? Edo bera  
zen eskaintza jaso zuen jainkosa?  
Edo agian gazela baino ez zen, ideia,  
iberiar gazelaren ideia hutsa?  
Hiru hankatan eutsirik, atsedean hartzen du.

Assis, 1961/4/8

---

# Artemidoro

*(Artemidororen erretratua momiaren  
hilkutxan, British Museum, Londres)*

Zure momia Britainiar Museoan dago  
bigarren solairuko ilara tristen artean.  
Hareek eta denborak estalitako  
hilerri kopto batean aurkitu zuen norbaitek,  
zure hilkutxa hilobi-lapurrek  
ez profanatuan ezagutu zenuen  
mendetako eternitate lasaian.  
Horrela ihartu zinen bare, bizi  
izan zinen giza oroimenetan  
zu zinena azkar galtzen zen bitartean.  
Ez zinen errege, ez printze. Eta ospetsua  
izan zinen agian zurekin tratua  
izan zuten merkatarientzat, zurekin ordu txikietan  
afaldu zuten lagunentzat, zure  
emaztearentzat, seme-alabentzat (txikiak zirenean  
bakarrik  
erraldoi ikusi zintuzten eta pentsakor eta aita on).  
Zugandik gelditu den momia (azal idorra bakarrik

han-hemen urratua, hezurak bistan  
lotura zikinak askatu diren lekuetan)  
ez da besteetatik bereizten  
hamarkadetako hautsa duten beirazko ilaretan,  
hauts fin bat, zurea agian edo Londresekoa.  
Zure hilkutxak axola du, edo zehazki, estalkiak,  
non, garai hartako ohituren arabera,  
margolari batek, hildakoen erretratuak egitea  
haren lanbide nagusi, zure aurpegia ondu zuen.  
Baliteke zuk zeuk, irribera eta pentsakor,  
erretratu hau agindu izana, edo  
hil ondoren zure eliz anaiek  
erabakia hartu eta tragediazko  
maskara prestu hori jarri izana,  
tragedia konbentzionala beste mundu baten  
agertokian.

Baliteke halaber erretratua zure maskara baino  
aukeratzen zen aurpegi bat izatea — zuk edo  
besteek hautatua  
azken ekitaldi honetarako: hilda egotearena  
begiak zabalik suertatu eta etortzeko zenari.  
Eta zure begirada likidoa finko gelditu zen  
— Kretara joan zen keinu batez,  
gero Venezia kaltegabe zeharkatu,





igarotzen entzuten dituzu eta bisitarien zalaparta  
beste gela ikusgarriagoetan.

Zer gehiago entzungo duzu begi horiekin  
gugan eta gure gauzetan,  
egunsentiaren urraketak estatuetan bezala,  
betierekoak probokatzen dituen eztanda laburrei adi  
erne,  
haragia, azala, hezurak apurka-apurka  
arrakalatzten, guztia,  
jainkoengandik gugan bizi eta berpizten den guztia,  
agian zuk, merkatari lasai hori, sinetsi ere ez zenuen  
hori guztia?

Lisboa, 1959/4/28

---

# Camões-ek bere garaikideei hitz egiten die

*(Camões, Bruno Giorgirena, Ministério  
da Educação do Brasil, Rio de Janeiro)*

Dena lapurtu ahal didazue:

ideiak, hitzak, irudiak,

baita metaforak ere, gaiak, motiboak,

sinboloak, eta lehentasuna

hizkuntza berri batean pairatutako minetan,

besteekiko ulermenean, amodio kontuetan

borrokatu, epaitu eta penetratzearen ausardian,

irenduak zarete horretarako.

Eta gainera ni aipatu gabe utzi ahal izango nauzue,

ni ezabatu, alde batera utzi, baita

beste lapur zorionsuagoak txalotu ere.

Ez du axolarik: zigorra

izugarria izango baita. Ez bakarrik

zuen ilobek nor zareten jakin ez

eta nitaz gehiago jakingo dutenean

zuetaz baino, ezer ez dakizuela itxura egiten

duzuela,

baita saiatuki lapurtzen duzuen guzti-guztiak ere onura ekarriko dio nire izenari. Eta nirea izango da, nik egindakotzat hartua, nik egindakotzat edukia, baita zuek bakarrik, lapurreta barik, egin duzuen apur miserable hori ere.

Ez duzue ezer izango, ezertxo ere ez, ezta hezurrik ere,

zuen eskeleto bat bilatuko baitute

nire eskeletotzat hartzeko. Zuek bezalako

beste lapur batzuek, belauniko, hilobian loreak ipin ditzaten.

Assis, 1961/6/11

---

# Rembrandten “Emakume hila”

*(Emakume hila, Rembrandtena,  
Musée National d'Art Ancien, Brusela)*

Hilda. Hilda bakarrik. Hilda baino ez.  
Ez dirudi lotan. Ezin esan  
amets egin edo atsedan hartu duenik, edo bizitzatik  
bizi izan ez zuena baino gehiago aldean eraman  
duenik.

Hilda dagoela dirudi eta ez dirudi beste ezer.  
Eta dena antolatu, prestatu eta egokitu da  
heriotza berea bakarrik izan dadin.

Oso zaharra da. Zaharra, edo higatua  
larrimin lasaian zain egoteagatik bizitzak  
nola desegiten dituen kolpez kolpe  
haragiaren eta oroimenaren loturak, plazeraren eta  
errukiarenak,  
edo besteak entzute hutsagatik barre egin,  
eta negar eta xuxurlatu zutenean edo isilik  
beren buruak entzun berak bere burua entzuten  
zuen moduan,

zainetan doan denbora  
arnastearen entretenimendu lasaian.

Orotan iraungi da bizitza. Lehenengoz,  
bera eta bestea ere zen bizitza,  
maite eta apur bat ezagutu zituenena  
edo, irudi lausoki gogoratuak, egun  
gogoetatsuen itzal zirenak, begiak igaro eta  
gelditzen

diren gauzetan pausatzen direnean.

Gero bizitza emakumearen baitan — bizitze huts,  
bizirik egote huts hori, bere izena jakin gabe —  
eta berea ez zena baina haren jabetza  
eman ziotena, mendeak igarotzearekin,  
lehendabiziko gau zingiratsutik  
jaiotzean negar egin zuen gela hartaraino.

Inolako bizitza formak ez du iraun  
begitartea zurbiltzen dion argi lausoan  
hain bolikara hil-jantzi zurian  
burusi ilunean nabarmen.

Orain dela gutxi hil da, eta ez ahoan,  
ezpain finekoa, ertz luzeak,  
ez betazal astunetan edo

sudur konkorraren zorrotzean,  
ez du ezerk dardararik egiten, ezta heriotzak ere,  
ezerk ez.

Argiak itzalpean utzi du gurutzea,  
horman zintzilikatua ohandzearen ondoan,  
hala ere aurpegian pausatu da argia zorrotz eta arin  
milaka zimurren ehuna argituz  
gu eta besteen artean, gu eta gauzen artean  
gu eta geronen artean  
higitzen den armiarmak eho duena, bizitza  
ez bazen ere larruazalaren uzkuertze hori  
muxu bat edo igarotako haize bolada bat irristatzen  
denean,  
estutasun zoratua, beldur bat-batekoa,  
konfiantza tristearen luzamendua.

Hilda dago. Hilda bakarrik. Baina, halere,  
koloreek ere eusten ez duten bakardadean  
ez da mundua hiltzen, Herio ez dager,  
ezer ez dager bera baino,  
bizitzaren bakardadea izateari utzi ziona,  
han gelditzeko, usteldu baino lehen,  
hiltzoria bukatzen den une laburrean,

azkenean kanpoan ikusten dugun bakardadea  
begitarte laruan, hil-jantzi zurian,  
burusi ilunean, argi lausoan,  
buru geldiaren jarreran,  
betazal lodi astun  
begi gainean betiko itxietan.

Lisboa, 1959/5//12



---

# Gutuna ene seme-alabei Goyaren fusilamenduei buruz

*(Maiatzak Hiru, Goyarena,  
Museo del Prado, Madril)*

Ez dakit, ene seme-alabok, nolakoa izango den zuen  
mundua.

Baliteke, dena posible baita, zuentzako  
nik nahi dudana izatea. Mundu erraz bat  
non gauza guztiek duten zailtasuna etorriko  
litzatekeen soilik

gauzak berez erraz eta natural ez izatetik.

Mundu bat non guztia egongo den baimenduta,  
zuen gustu, zuen desira, zuen plazeraren arabera,  
zuen begirunearen arabera besteekiko, besteen  
begirunearen arabera zuekiko.

Eta baliteke hori guztia ere ez izatea, bizi izateko  
interesatzen zaizuna hori ere ez izatea. Dena da  
posible,

borrokatu egiten dugun arren, borrokatu egin behar  
dugun bezala,

guretzat askatasun eta justizia den ororen alde,

edo bi horiek baino gehiago,  
bizirik egotearen ohoreari buruzko ardura leialaren  
alde.

Egunen batean jakingo duzue gizateriaz haraindi  
zenbatezinak direla horrela pentsatu zutenak,  
lagun hurkoarengan maitatu zituztenak haren  
bakantasuna,  
ez-ohikotasuna, askatasuna eta desberdintasuna,  
eta gero sakrifikatu egin zituztenak, torturatu,  
jipoitu

eta justizia laikoaren eskuetan jarri  
“erruki handiz eta odol jariorik gabe” akaba  
zitzaten.

Jainko bati, pentsamendu bati,  
aberri bati, itxaropen bati, edo bakarrik  
erraiak jaten zizkien gose eztabaidaezinari leial  
izateagatik,

larrutu zituzten, tripak atera, erre, gaseztatu,  
eta gorpuak metatu, bizi izan ziren bezain  
anonimoki,

edo errautsak sakabanatu, haien oroitzapenik ere  
gera ez zedin.

Batzuetan, arraza batekoa izateagatik, beste  
batzuetan

klase batekoa izateagatik, ordaindu zituzten guztiek  
oker ez eginak, baita okerrak egin izanaren  
kontzientziarik

ez zutenean ere. Baina era berean gertatu zen  
eta gertatzen da ez zituztela hil.

Gailentzeko milaka modu egon da beti,  
otzanki suntsituz, leunki,  
bide ezin ulertuzkoen bitartez, Jainkoarenak  
bezalakoak esaten dutenez.

Fusilamendu hauek, heroismo hau, laztura hau,  
Espainian gertaturiko gauza bat izan zen, beste  
milaren artean,

orain dela mende bat baino gehiago eta bortitza eta  
bidegabea zenez

Goya izena zuen margolari baten bihotza mindu  
zuen,

oso bihotz handia, amorruz eta amodioz  
betea. Baina hau ez da ezer, ene seme-alabok.

Gertaera bat bakarrik, gertaera labur bat  
kate honetan non katebegi bat zareten (edo ez  
zinateketen izango)

burdinaz eta izerdiz eta odolez eta semen apur batez  
egina,

zuentzako amets egiten dudan mundurako bidean.

Sinets iezadazue, inongo munduk, inork, ezerk  
ez du balio bizitza bat edo bizitza edukitzearen poza  
baino gehiago.

Eta garrantzizkoena hauxe da — poztasun hori.  
Sinets iezadazue, hainbestetan aipatuko dizueten  
duintasuna

bizipoz hori baino ez da, bizirik egotetik  
datorrena, jakinda zuek ez zaudetela inoiz  
beste bat baino biziago, inork ez duela sufritu behar,  
inor ez dela hil behar  
zuetako batek bakarrik apur bat gehiago eutsi  
diezaion

guztiona den eta etorriko den heriotzari.  
Espero dut suharki hori guztia baretasunez jakingo  
duzuela

inori errua bota gabe, izurik gabe, anbiziorik gabe,  
eta batez ere hozkeriarik  
edo axolagabekeriari gabe. Hainbeste odol,  
hainbeste min, hainbeste larridura, egunen batean  
— mundu zoriontsu baten asperdura atzetik joaten  
bazaizue ere —

ez dira alferrikakoak izango. Aitortzen dut,  
askotan, hainbeste mendetako zapalkuntza

eta ankerkeriaren lazturan pentsatzen ari naizelarik,  
zalantzak ditudala  
eta samindurak gainezka hartzen nauela  
kontsolaezin.  
Alferrik izango da ala ez? Baina, alferrik ez bada  
ere,  
nork berpiztuko ditu milioi horiek, nork itzuliko die,  
bizitza ez ezik, lapurtu zieten guztia ere?  
Inongo Azken Judiziok, ene seme-alabok, ezin izango  
die itzuli  
bizi izan ez zuten une hura, gozatu ez zuten  
gauza hura, amodiozko  
keinu hura, zer egingo zuten “bihar”.  
Eta, horregatik, sortzen dugun mundu bera  
kontu handiz tratatu behar dugu, gurea  
ez den gauza bezala, utzi digutena  
begirunez gorde dezagun  
gure zainetatik dabilen odolaren oroitzapenetan,  
beste bat izan zen gure haragiaren oroitzapenetan  
eta besteek maitatu ez zuten,  
lapurtu baitzieten, maitasunaren oroitzapenetan.

Lisboa, 1959/6/25

---

# Wanda Landowskak Domenico Scarlattiren sonatak jotzen ditu

Sonata hauek jotzen entzuten dut  
klabezin-jolea hil eta hainbat urte geroago,  
Domenico bera ere hil eta  
berrehun urte geroago.  
Hau da orain gure gizateria,  
luzatzen da bizitza  
eta baita norbaitek dardarazi zituen soinuak ere,  
musika tresna abandonatu bat  
berpiztu zuten hauek bezalakoak.  
Erraza izango litzateke  
ileordeen Madril hura  
irudikatzea, berarekin eraman zuen  
printzesa portugaldarra  
eta dotorezia ezti horretan  
hispanizatu ziren  
kantiga harmoniatsuak.  
Baina ez. Ezta klabezin-jolearen  
soslai luze-mehea ere  
zorrozki  
hatz gogortuak

samurki mugituz  
iragan soinuuzko  
tekla horietan.  
Hori guztia ez da ezer  
hau bezalako abstrakzioaren aurrean:  
musika hila  
klabezin hil batean  
emakume hilak joa  
berpizkundearen  
apoteosi honetan  
nik, keinu batez,  
demiurgo eta azti,  
deitu ahal dudana  
bizitzan murgil nazan  
garaipenezko  
bakardadea  
kolpekatuz.

1964/4/7

---

# Schuberten abestiak, Wilhelm Müllerren testuekin

Sentimentalismo hutsalerako poemak ziren,  
duinak izateko inolako kategoriarik gabeak.  
Kritikak horrela dio. Eta, orduan, Schuberten gustu  
txarrak  
edo bere jenioak abestiok  
egin zituen haiekin,  
samurrez, xarmaz eta samin sakonez beteak,  
bizitzaren analisi den oro urratzen dutenak,  
iristeko hara non analizatua larrimin sorta bat den  
analisi posible, beharrezkorik gabe. Erraztasun  
ia ergelaz ahotsa hitzen gainean doa  
jarioan, hitzetan eta hitzetatik, hitzez haratago,  
pianoak distirarik eta apaingarririk gabe doinua  
soilik lagundu edo prestatzen duen bitartean.  
Nola da posible? Nola izan zen posible? Musikak  
eman zien  
poemei poemek ez zutena? Edo poemek  
bazuten batzuetan poesiak izan ahal duena poesia  
zehazki izan gabe: poesiaren falta,  
musikak ondu eta sortzeko gai dena?



Askotan musika handia egin da poesia txarrarekin,  
eta gutxitan poesia bikainarekin!

Baina kasu batzuetan, egiatan, poesiak dioenak  
edo modu hutsal eta zatarrean dioenak  
ez du axolarik, ahotserako aitzakia baino ez delako  
(idatzi zenean izan zen bezala) — eta orduan mirari  
hau

gertatzen da: musikak dioela  
hitzek ozta-ozta adierazi edo ezkututzen zutena.

1974/4/20

---

## Chopin — inbentario bat

Ia hirurogei mazurka; hogeita hamar estudio inguru;  
bi dozena preludio; hogeita bat nokturno;  
hamabost bat bals; dozenatik gora “polonaise”;  
“scherzo”, impromptu eta baladak, launa;  
hiru sonata pianorako; eta bi kontzertu piano eta  
orkestrarako,  
“berceuse” bat, barkarola bat, fantasia bat,  
tarantela bat eta abar,  
gainera hamazazpi abesti inguru ahots eta  
pianorako; tuberkulosi hilgarri bat;  
bakarlari talentu bat; arrakasta mundutar asko;  
pasio zorigaiztoko bat;  
izen handiko emakume batekin harreman ospetsu  
bat; beste harreman asko;  
muga segururik eta independentzia jakinik gabeko  
aberri bat;  
Erromantizismoaren Europa frantsesa; famako gizon  
batzuekiko adiskidetasunak;  
eta bizi, hogeita hemeretzi urte bakarrik. Beste  
batzuk gutxiago bizi ziren, gehiago  
idatzi,

erbestearen ogi klasikoki mikatza mikatzago jan,  
bazerutuak  
edo erasotuak izan ziren, abandonaturik hil, ez ziren  
logela  
edo areto hotsandikotan ibili, hobekien menderatzen  
zuten instrumentuaz gutxiago fidatu  
ziren,  
aberrigabekoagoak ere izan ziren existitzen ez zen  
aberriaz minduta.  
Horretaz gain, bera ez bezala, ia guztiak libreago  
gelditu ziren aukera nardagarri  
hauek izatetik:  
birjinen melodia, irenduen erritmo,  
merkezurreko konplimendu, eskolagabeen larrimin,  
eta arrunkeraren beste hainbeste gauza erdipurdiko  
eta zikoitz. Edo  
kontzertuetan zati ez-nagusi izatetik bakarlarientzat,  
musika gustatzen zaiela uste duten  
jendeentzako,  
baina ez dute atsegin, jotzen dutenean. Horrez  
landa,  
handinahi bat zen, pedante bat, ez zeukan  
aristokrazian sinetsita zegoena,

erreakzionario bat, Poloniako oligarkiak, koitaduak,  
eta beste batzuk,  
askatuko zituzten iraultzen irrikaz. Eta hori guztia  
gutxi balitz,  
jendea hasi da mesfidati pentsatzen erromantikoa  
ere ez zela,  
ez behintzat berak antzeztu edo sinetsarazi nahi  
zuen moduan.

Musika ontzeko arte bat, poema bat idazten den  
bezala,  
makaltasunaren mozorroarekin dabilen indarra,  
egitura estaltzen duen  
inprobisazio aire bat, ironia melodikoaren gainetik  
malenkonia harmoniatsu bat (edo alderantziz),  
erritmoen magia  
pentsamendua estaltzeko erabilia — eta hainbeste  
estali zuen,  
non oraindik jenio astakilotzat jotzen duten  
pentsamendua hatzetan zeukan gizon  
hau,  
bere burua sortu ahal izateko, sentimenduaren edo  
forma askeen maskara  
erabiltzeko ausardia izan zuena. Hain trebea bere  
sukaldean non zerbitzatu ahal den

epel, saudadearen eta larriminaren orduetan,  
bero, bizitza arrakastatsuen okasio handienetan,  
eta hotz, musikak bakarrik hitz egingo duenean  
munduan pianoa eta ezer ez gehiago izatearen  
etsipen hutsalez.

Madison, 1966/12/19

---

Sophia de Mello Breyner  
Andresen-i *Pedra filosofal*  
liburuko ale bat bidaltzean

Seme-alabak eta poemak, nola munduratzten dituzu?  
Hondartzan koralen itzalek hitz egiten dizuten  
bezala?

Larriminaren ilunabar sakona bezala?

Bere burua banatzen duen norbait bezala?

Hil ahal zaituen norbait bezala?

Edo zuregana inoiz itzultzen ez den norbait bezala?

1950/12/5

---

# Guido Cavalcantiren glosa

*Perchi' I' no espero di tornar giammai*

Jaio nintzen herrira inoiz itzultzea  
ez baitut espero; itzuli arren  
ez baitut espero ni ezagutzeko prest  
aurkitzea, nik, orain badakit,

bera ezagutzen dudan bezala, ez baitut espero  
saudaderik pairatzea; edo bera gogoratu gabe  
igaro ditudan egunen kontua galtzea;  
ez baitut ezer espero, eta beti erbestez

hilko naiz, baina munduari leial,  
beste ezeinetan ez bainaiz erbestez hilko;  
ez baitut espero, nire putzu sakonetik,

zeruari begira eta arnasa dudan aire urdin hori  
baino gehiago ikustea, baztertu nauten  
guztiek arnasa duten aire zikin hori;

ez baitut ezer espero, pozik espero dut.





ukondoka doilorki miserian,  
korazatuaren zain.

Batzuk hiltzen dira, beste batzuek beren buruak  
saltzen dituzte,  
beste batzuek amore eman eta ahanzten dute eta  
beste batzuk

hiltzen dituzte, torturatu, preso hartu.

Batzuetan Polizia jendearen artean igaro  
eta furgoietan eramaten ditu batzuk.

Baina badago beti beste jende bat urrutira begira,  
ea korazatua kairaino ekarriko duen kea  
altxatzen den urrunean.

Berandutzen ari da. Atzeratzen ari da.

Jendeak ez du jadanik amesten  
korazatua igarotzen denik  
txalokatzen duen eskudraren artean.  
Soil-soilik, tinko, egonarriz, zain dago  
ea korazatua bidaiatik itzuli  
eta kaira iristen den.

Baina inork jadanik espero ez badu ere,  
korazatua iritsiko da. Ez dago



---

# Hilobi bat Londresen

Londresko hotz eta lainoen artean,  
berdinak diren etxe haietako batean,  
munduko min guztien gainean makurtzen da,  
munduan esklaboak daudenetik.

Berdinak dira minak etxe apal haiek bezala,  
adreiluzkoak, kea darie ilun, eta bakartiak.

Esklabo guztiak ere berdinak dira:

Ramses II.arenak, Kleopatrarenak, Tai-Ping  
enperadoreenak,

Asurbanipal-enak, Dabid erregearenak, D. Henrique  
infantearenak, Menfisko Sartoris-enak, D. Pedro II.a  
enperadorearen baroi zibilizatuenak.

“Potteries”etakoak, Silesiakoak, Afrikakoak,  
Errusiakoak. (Eta are Arabiako Lawrence koronelak  
berarekin lo egiten zuten esklabo gazteen  
askatasun moralez filosofatu zuen).

Aroen eta esklaboen belaunaldien hotz ikaragarrian,  
ez dago surik hotz hori arintzeko bere bihotzean,  
artikuluak, panfletoak idazten ditu, atsedetik gabe  
irakurri eta oharrak hartu, historia egin nekerik  
gabe

heriotzara arte. Baina bihotza, maitasunak  
eta zenbakiek, zentsurek eta jazarpenek  
mindua, sutan du, sutan distiratsu  
heriotzara arte. — Zure lan guztiak argitaratuta  
ikusitako nahi ditut — esan dio jarraitzaileak.  
— Baita nik ere — erantzun. Eta, paper,  
ohar eta eskuizkribu piloari begira, gaineratu du  
itxaropentsu eta saminduta — Baina lehendabizi  
idatzi egin behar ditut —.

Nola izan dira idatziak eta berridatziak! Irakurriak  
izan ez diren bezala. Baina ez du axolarik.  
Gau hartan — uste zuten — elur guztia  
urtu zen Londresen. Eta enperadore bat ere  
ito eta hil zen  
elur urtuan. Enperadoreek, oro har,  
esklaboak askatzen dituzte merkeago ateratzeko  
eta inolako ardurarik gabe alokatu ahal izateko.  
Lawrence koronelak ere (gorago esan dugun  
moduan) bazuen  
lan kontratu bat bere esklabo gazteekin. Geroago  
gizarte-segurantza sortu zen.  
Londresko hotz eta lainoen artean bada, baina,  
leku bat hain itxia, hain itxia,  
berau zeharkatzea ezinezkoa da, elurra

urtzen duen haizea izanda ere. Leku  
gori bat, esklabo guztiak, hautsa  
galdu zuten guztiak betidanik — oi Espartako —  
han biltzen baitira ikusezin baina trinko,  
inoiz traizionatu ez den gotorleku amodiozko bat,  
ez baitago ezer mundua ulertzeari uztea  
bezalakorik. Esklaboek badakite soilik  
aldatu ahal dutela.

Zer gehiago jakin behar dugu?

1962

---

# Kretan, Minotauroarekin

## I

Portugalen jaioa, gurasoak portugaldarrak,  
eta brasildarren aita Brasilen,  
estatubatuarra izango naiz ziur aski han nagoenean.  
Herritartasunen bilduma egingo dut, erabili,  
erantzi eta abandonatzen diren alkandorak bezala,  
jantzi  
eta zerbitzu egin zigun arropari zor zaion begirune  
guztiarekin.

Ni neu naiz neure aberria. Aipatzen dudan aberria  
belaunaldien kasualitatez jaio naizen  
hizkuntza da. Eta egiten eta bizi dudanaren aberria  
mundu honetako gizatasun gutxiak sortzen didan  
amorrua da,  
beste mundu batean sinesten ez dudan arren, eta  
beste bat nahi izango banu  
haxe bera izango litzateke. Baina, egunen batean  
dena ahanzten badut,

Minotauroarekin

Kretan kafea hartzen

zahartzea espero dut,  
lotsarik ez duten jainkoen begiradapean.

## II

Minotauroak ulertuko nau.  
Adarrak ditu, jakintsuek eta bizitzaren etsaiek  
bezala.

Erdi gizon, erdi zezen, gizon guztiak bezala.  
Pasifaeren semea, Racineren bertsolerro baten  
anaia izan zen,

Valéry ergelak "langue"aren ederrenetako bat jotzen  
zuen.

Baita Ariadneren neba ere, mataza batean nahasi  
zuten eta izorratu.

Teseok, heroiak, eta, greziar heroiko guztiak bezala,  
putaseme bat,

bere kontura barre egin zuen mutur  
errespetagarrian.

Minotauroak ulertuko nau, kafea hartuko du nirekin,  
bitartean

eguzkia itsaso gainean etzatera doa bare, eta  
itzalak,

ninfa eta efebo langabetuz beterik,  
kikaretan bilduko dira eztiro,  
hatz zikinarekin, bizitzaren jatorria ikertzeagatik,  
mugituko dugun azukrea bezala.

### III

Hor aurkitu nahi dut berriz nire burua, bizitza  
munduan zehar  
hamaika zatitan barreiatu utzi ondoren, gizagaixo  
hark  
esan zuen bezala, Minotauroak ez zuen hori irakurri,  
zeren  
jende guztiak bezala, ez baitaki portugesez.  
Nik ere ez dakit grezieraz, iturri fidagarrienen  
arabera.  
Volapukeraz hitz egingo dugu, bietarik inork  
ez baitaki. Minotauroak  
ez zuen grezieraz egiten, ez zen greziarra, Grezia  
baino lehen bizi izan zen,  
aspaldidanik estaltzen gaituen kaka jakintsu hori  
guztia baino lehen,  
gure esklaboek egin zutena, edo guk geuk besteen



esklaboak garenean. Kafea hartzan dugun bitartean penak kontatuko dizkiogu elkarri.

#### IV

Aberriekin erosi eta saldu egiten gaituzte, haiena ez izateagatik

lotsa sentitzeko behar bezain garesti saltzen diren aberririk ezean. Ez nik ez Minotauroak ez dugu inongo aberririk izango. Soilik kafea, usaintsu eta bortitza, ez Arabiakoa, ezta Brasilekoa ere,

ez Fedecam-ekoa edo Angolakoa, ez beste inongoa.

Baina kafea

hala ere, eta nik, seme baten samurtasunaz, ikusiko dut nola isurtzen den zezenaren kokotsetik gizonaren belaunetaraino, berak ez daki nork utzi zizkion, aitak edo amak, ondare moduan

adar oker horiek bekoki prestuan apaingarri,

Atenas baino eta, batek daki,

Palestina baino, eta beste leku turistiko

biziki aberkoiak baino lehenagokoak.

## V

Kretan, Minotauroarekin,  
poemarik gabe eta bizitzarik gabe,  
aberririk gabe eta espiriturik gabe,  
ezer gabe, inor gabe,  
hatz zikina izan ezik,  
nire kafea bakez hartuko dut.

1965/7/5

---

# Don Juan-en auhena

Ez zaituztet, gorputzak, saudadez gogoratzen,  
ez baitut gogoan gordetzen ezta zuetako baten  
formarik ere, eta ez ditut gogora ekartzen beste

batzuk

ikustean, nahiz eta ikustean ia gogoratzen  
zaituztedan.

Keinu bat, usain bat, begirada bat, sorbalden eroria,  
ilearen barreiatzea ala ez, haren kolorea,  
eta zuen azalaren kolorea, amodioaren

modu geldoa ala lasterra, dena plazerez edo plazer  
gabe

egitearen askatasuna ala ez,  
ezpain arrosak edo ilunak, izterrak

altxatzeko modua, esku urduriak

paratzeko era eta non, irekitzen

edo erdi ixten ziren begiak, eta arnasestua,

eta gainezka betetzen zigun heze hura —

— puskaturik gogoratzen zaituztet, forman nahiz  
ekinean,

eta puska batzuk, beste batenak bezala,

agian bakar batenak dira hainbatetan errepikatuta.

Gogoratzen dudan guztia ez dut bakar batetik  
gogoratzen,  
eta ez-saudaderik sentitzen dut, objekturik gabe,  
saudade berberaz. Bat bakarrik gogoratuko banu  
osorik (ilunpetan ikusiko ez banu ere),  
gogoratzea ez litzateke niretzat izango  
amorrurik eta etsipen triste hau zuetaz gozatu  
izanagatik,  
edandako ura edo entzundako haizea bezala,  
edo hatz artean joandako hareak bezala.

Nor zarete orain, zer egiten duzue eta non,  
edo zuek berriz edukitzea — ai ez dut  
eduki edo jakin nahi. Baina gogoratzen zaituztet  
osoak, dardaratiak, gorputz biluziak,  
behin-behinekoak gizatiar erara, nirea den ezer  
gabe  
eman eta jasotako plazeretik haratago.  
Ai, horrela gogoratu ahal bazintuztet! Baina  
nik ez nuen inoiz desiratutako inor maite eta ondo  
gogoratzen da soilik apurka-apurka gozaten dena,  
geure buruak ahanztura maitatuari emanak.

1967/7/30

---

# Omenaldia

## Tomás António Gonzagari

Gonzaga: bazeneukan ezer gehiagorik ez esatea, arkadiar pedante baten poema jasanezinak baino ez idaztea, mintzaira bifido batean lagunarteko eta alderantzizko latinerako.

Baina behin hauxe esan zenuen:  
“mundua baino handiagoa dut bihotza”.  
Ez du axolarik zein egoeratan esan zenuen

Bihotza mundua baino handiagoa —  
edozein poetak inoiz esan duen  
gauza bitxienetako bat.

Beharbada klasiko zahar bati  
kopiatu zenion. Baina, nola  
esan zenuen zuk hori, Gonzaga! Zalantzarik gabe

zure bihotza mundua baino handiagoa zen:  
aberriak edo Mariliak ez zenituen aski.

(Nahiz eta Mozambiken gero, Rimbaud Ethiopian  
bezala,  
esklaboen salerosketan loditu zinen).

Madison, 1968/4/13

---

# Biluztasunaz

*Quoi! Tout nu! Dira-t-on, n'avait-il pas d'honte?*

*(...)*

*Tout es nu sur la terre, hormis l'hypocrisie.*

MUSSET, Namouna

Biluzik jaio gara, biluzik  
aztertzen gaitu medikuak,  
armadak, soinketa irakasleak.

Biluzik ebakuntza mahaian,  
ospitaleko ohean,  
heriotzarenean.

Biluzik amodioan elkar ikusteko,  
beste gorputzen azala sentitzeko eta,  
penetratu baino gehiago,

penetratuaz esaten diguten  
talka eta igurtzia edukitzeko.

Beti biluzik, garrantzirik ez duten gauzetan izan  
ezik.

Orduan zergatik beldurtzen ditu batzuk hainbeste  
besteen biluztasunak? Beldurra  
izango ote diote, askoren  
itsusiari baino, batzuen  
ederrari, edo bakan batzuen  
atal bikainen

lilurari? Eta (bekaizkeriak)  
paralizaturik mundua eta bizitza  
jitoan aske joaten uzteari

askatasun biluzirantz?

1968-69



---

# Chartres edo bakeak egiten Europarekin

Chartres-en, oi Péguy, bakeak egin ditut  
Europarekin. Zapuztuta ez,  
baina nekatuta nengoen. Lehendabizi  
bazkaria plazako hotel txiki batean,  
luxuzkorik ez, eta hala ere,  
igande burgesean familiak  
“déjeuner en ville”, hain “vieille France”,  
zerbitzariak pozik haien lan onarekin,  
jendea pozik horrela bazkaltzeaz, denboraz,  
gustura, atseginez, dotoreziaz. *Réserve  
Couronnée*-k, edo eguerdi oparo eta distiragabeak  
malkoak isurtzeraino hunkitu naute.  
Agure-xahartzen ari naiz, “tout doucement”.

Gero, Andre Maria, Chartres, Erdi Aroa,  
eta ariman saudade honen bakea,  
eta mundu honek zabarkeriari  
aurre egin behar dion ziurtasuna — eta aurre egingo  
dio —  
eta astakirtenei, arrunkerari, jendilajeari, guztiari,

“veau flambé”k bezala, loriazko beirateek bezala,  
Beauce-ren gainean tente dagoen gezi honek bezala,  
Nôtre-Dameko irudi arra  
soro amaigabeen erdian,  
menderen mendetan zapalduak  
harik eta plano horizontal bihurtu arte non,  
maiestatearen atariak, fedearen konkrezioa,  
gure gizateria harri den natura formagabera  
itzulerarik gabe. Ama Jainkosa  
kriptaren barruan  
beirazko igoera dardarti hau bilakatzen den bezala,  
kolorezko, argiak piztu baina igaro ez duena.

Hemen aurkitu zaitut, Europa, ene lurra,  
horrela aurkitu dut gure gizateria, zeharrargi  
eta, zutabe ilunetan, hain harrizko.

Chartres, 1968/11/10

---

# Hadrianoren villa

Bat-batean, landetxe eta errepidearen  
eta mendi sasitsu eta Tivoliren artean, oasi  
ikusezin erraldoia.

Zuhaitz sakabanatuen artean  
igarotzen den eguzkitara, larre berdeak eta  
hormak, termak, anfiteatroak, aintzirak,  
Kanopus-aren bake bare eta luzea,  
eta han beltxargak bogan arestian bezala.

Palazioa, inperioa miniaturan,  
eta batez ere bakardade jendeztatua:  
zaintzaileak, idazkariak, zerbitzariak  
eta gladiadoreak, eta itzal guztiz indartsu bat,  
arin eta malgua aldi berean,  
bekokian barraskiloak jolasean.

Hondakinetako isiltasun honetan, hotz jaisten dira  
itzalak.

Baina Enperadorea bizirik dago betiko,  
eta botere lasai baten amets berealdikoa,

non esklaboak ere libre izango liratekeen  
eta arimak gorputz baino ez, gauza bakarraren  
beldur:

bizitzan eder eta gazte izatea ez salbatzea.

(1969 maiatza)

---

# Oharra liburu-dendako atean

Ez dezatela irakur minberek liburu hau, bereziki etxeko hitz gordinen heroiek, ninfa amoranteek, garbiaren vestaleek, hanka bakarrean txingoka dabilzanek, bi esku kastuak, bata atzean eta bestea aurrean, hitzei beldurrik gabe bi hankatan dabilzanen ahoa hirugarrenarekin estaltzen duten bitartean.

Eta ihes egin dezala amodioaz ez dakienak, edozein amodioz, haragiarenaz edo berez bakarrik mugitzen denaz, *ez sari zitalak mugitua, baizen goiko eta ia eternala*. Hemen amodioaz eta poesiaz eta aberri izateaz da kontua: jendilajeak ez dezala igaro atalase sakratu hau, ez dadila inor ausart arratoiz betetzera gune aske hau, hemen giza-duintasunez hiltzen da Portugalen jaio izanaren minez ariman daramaguna beste erremediorik gabe.

1972/1/25

---

# Zahartzaroaren arbuioa

Luzaro bizitzeko edo burdinazkoa da bat  
edo zahar bat ikustean pentsatzen dut: zenbat jende  
hil, pozoitu, zapaldu edo suntsitu zuen?

Zenbat bizitza desegin dago heriotzaren bakean  
jadanik ahanzten den oroimen horretan?

Gizatxarrak gizakiak, nork ez du bizirik iraun

beste bizitzen kontura? Zenbat odol,

zenbat ontasun, zenbat xalotasun

ez zuen anker irentsi eta kurrinka,

orain zimurdura gurtuak dituenak

eta azalaren xarma hura,

zain txiki urdin arrosek zeharkatua?

Azal hori bera ere, zenbat aldiz ez zuen

harri artean larruturik utzi

biluztu eta joaten den sugearen antzera?

Edo burdinazkoa da bat. Edo kriminal zaharra,

egin zuen gaizkia bere buruari barkatu ziona

besteei biktima izatea barkatu zien bezala.

1971/12/18

---

# [hilobiak dauden tokitik igarotzean]

Hilobiak dauden tokitik igarotzean  
— edozein tokitatik igarotzean dago giza-hautsa —  
zenbat gaiztakeria datzan han sakabanatuta,  
ondare moduan haragian daramaten  
beste gizakien arnasa izateko prest:  
zenbat saldukeria zikoitz ari da hortzak  
karraskatzen  
eta kontuak egiten etorkizunarekin:  
zenbat zitalkeria amorratzen dagoen oraindik  
zitalkeria osoa burutu ez izateagatik.  
Hori guztia da gizateria.

Baina mendi, muino, larre,  
basamortu eta basoetako hauts artean,  
edo itsaso sakoneko ilunpe itxienetan  
geruza bigun moduan likatsu  
jalki den hauts horretan — zenbat amets datzan  
handitasunez beterik, baina handitasun hori  
suntsitu, saldu eta kondenuatu zuten  
gizateria diren horiek.

Ez da inoiz testuingurua edo historia izan ezta patua ezta probidentzia ere, handitasuna hil duena edozein gauzatan, izan inperio, lan edo une batez zoriontsuago izateko keinu bizi huts.

Ez, hiltzailea izan da beti ezkututzen dena beste gizateria batean.

Hildakoen eta hiltzaileen hauts artean igarotzen gara. Eta hauts izango gara haiek diren bezala. Bigarrenak zigorgabe beti, oraindik eta betiko kontsolaezin lehenengoak. Inongo bakek ez digu gaiztakeriaren kalte-ordainik emango.

1971/5/27



---

# Hizkuntzalaritzaren hastapenak

Seme-alabak elkarri ingelesez entzuten ditut. Ez txikienak bakarrik, baita nagusiak ere, eta txikiekin hizketan. Ez ziren hemen jaio, guztiak hazi dira portugesa belarrietan zutela. Baina ingelesez hitz egiten dute, ez dira amerikarrak bakarrik izango: urtu dira, urtzen ari dira haiena ez den itsaso batean. Hitz egidazue poesiaren misterioez, hizkuntza baten, arraza baten tradizioez, herri baten edo hizkuntza baten esperientziarekin baino esaten ez den hartaz. Astakirtenak. Hizkuntzak, mendetan iraun eta beste batzuetan ahantziak ere bizirik irauten dutenak, egunero hiltzen dira oinordetzan hartu dituztenen toteltasunean: eta hain dira hilezin non dozena erdi bat urtek beste arraza baten, beste kultura baten zamapean urtzen den ahotik ezabatzen dituen. Hain metafisiko, hain itzulezin,

horrela desegiten dira, ez zero altuetan,  
beste hizkuntza batzuen eguneroko kakan baizik.

1970 urria

---

# Amsterdam

Ubide zentrokide eta erradialak — gorri —  
hippiak milaka geltokiko plazan —  
patrizioen etxe zaharrak lotan —  
suak hartu zuen sinagoga portugaldarra  
errotuluetan errabinoen izenak  
Mynheer Monteiro (eta Sousa) (eta Santos) —  
museoan  
itzalak eta Rembrandt emaztea belaunetan  
bizi izan zen etxean —  
erakusleihoetan agertzen zaizkie oinezkoei  
emakume biluziak betizuak Rubens horailak  
guztiak lasaitasun burges errespetagarrian.  
Beste museo batean hiriaren oroitzapen juduak,  
Daviden izarra jantzi zuen hiria  
juduek eraman behar zutela naziek agindu zutenean.

1970/1/1

---

# Ravena

Ordoki eta Alentejoko kaleetako hautsa bezalakoa  
hondakinak eta mosaikoak itzal gordinean.

San Vitale-n ordaindu nuen

argiak piztu eta Teodora etor zedin

Justiniano aurrez aurre Egiptoko faraoien begiak  
irekita. Bataiategiak

eta Apolinario biak eta urdin geometrikoan

Gala Plazidia lotan amaiera erromatarrean

Teodoriko bezala heriotza ostrogodoan.

Hori guztia barruan bakarrik, eguneko argiak  
edo ordaintzen den argiak ez baditu esnatzen.

Eta Dante lotan dago eta hurbil Byron

igaro zen Sodoma bezala inperio hilaren gainetik.

Ez da argirik pizten horiek ikusteko — Dantek

Italiako babesleku berezia izan zuen

Bigarren Gerraren bonbardaketen aurka

(pentsamendu eder bat): baina hautsa

baino gutxiago izango da hainbeste italiarrekin

oldarka munduan zehar lectura Dantis batekin?

Eta Byron — isles of Greece, o isles of Greece —

maitasunagatik aurpegi maitatua ikusten ez duen  
maitasunaren oroimena bakarrik (poesia bezala  
beti).

1971/5/24

---

# Ekumenismo lusitaniarra edo herritartasun bikoitza

Koloniako katedralaren alboko atetik  
(Errege Magoen hezurak gordetzeko — è vero —  
eraiki zuten katedrala)  
neguko goizaren eguzki zurira ateratzen ari nintzela  
berbaro portuges bat igotzen ari zen  
abitu beltzetan eskaieratik. Mojak,  
Erromara geldiunez geldiune  
erromes doazen brasildarrak ziren galdetu nien.  
Brasildarra  
nintzela esan nienean ama moja batek  
aurpegi zurbil eta lusitaniarra inguratzen zion  
mantelina zeramala  
esan zuen — A, herritartasuna hartua, ez zara  
brasildarra —.

Beste kasua Hanburgon izan zen,  
Hauptbahnhof-en. Hizkuntza guztietako  
egunkari kioskoa. Emakume bat heldu da  
beltzarana — ile-larru aberatsen barruan marra bat  
— eta zentzuzko alemanez  
egunkari portugaldarrez galdetu.

Argi zegoen portugaldar batek bakarrik nahi izango  
zuela horrelakoetan

Hanburgon unibertsoaren egoeraz informatu.

Portugaldarra zara? Banaiz. Hitzari hitz,

ni ere banintzela. Baina berak harrituta:

— Brasildar herritartasuna hartua? A, ez zara  
portugaldarra —.

Eta bizkarra eman zidan egunkaria eskuan,  
hankak oraindik arrain-saltzaile batenak orekan  
nekez takoi fin-finen gainean.

1970/1/20

---

## Lisboa — 1971

Taxi-gidaria bizitzaz kexaka ari zen.

400 ezkutu irabazten du asteko, eta nagusiak  
kalkulatzen du

gainontzekoa eskupekoen bidez lor dezakeela.

Minbiziaz hiltzen zaizkit lagunak,

gogaitasunez, literatura-orrialdez,

mutiko bat ikusi nuen gerran galdu zituen

bi eskurik gabe (eta ortopediakoak barre egiten zion

berak prestatutako bietatik, artifizialak, hain

arrosantzeko,

bat bakarrik “jantzi” nahi baitzuen).

Jendeak amorrazio gorrez eta pazientzia hartuz

autobusa, soldataren igoera, Espiritu Santuaren

etorrera, komentuko zopa itxaroten ditu.

Baina taxi-gidariak kontatu zidan

astakilo batek eztabaidan esan ziola:

“... Hi garai hartan hire aitaren potro batetik

bestera

ihesi henbilen ea horrela

putaseme izatetik libratzen hintzen...”

Eta hala da: potrotik potrora dabilta



ea ihes egiten duten — eta askok ez dute ihes  
egiten.

Eta beste batzuek ez diete ihes egiten ihes egin ez  
zutenei.

Lisboa, 1971/8/5

---

# Militarrez betetako kafetegia Luandan

Don Juan gazteak eskua bularrean  
(hatz bat loturaz bildua du eta)  
ondoko mahairantz makurtzen ditu bizarrak  
arraren setakeria publikoaz  
hitz egiteko temati neskarekin  
(ezkon-eraztuna hatzean, begi inguruan urdina),  
gutunak idazten ari da eta amorrus uxatzen du.

Beste bat heldu eta urrun eseri da.  
Bizarra egina, ile motza, sorbalda tente,  
kokotsa esku gainean jarri  
eta zigarroaren ke geldoaren artean  
harrapakinari begirada tinkoa jaurtitzen dioten  
horietakoa da  
—bera da, beria da, diote begiek tenk.

Beste mahai batean, hiru soldadu begi-bazterraz  
ari dira, erne lausoki hitz egiten duten bitartean,  
eta begi igaroezinek zeharka erantzten dute  
mahaian idazten ari denaren arropa gutxia.

Bere papera egin ondoren argi gera dadin,  
oi gizon puska... beste batzuk ditu zain...  
Don Juan horrek zerbitzariarekin hitz egin du  
biktimaz,  
bat-batean atera denaz. Biak barrezka.

Neskak alde egin duenean, bi ahobero  
sartu eta eseri dira  
joan ondoren neskak utzitako lekuari begira  
gelditu zenaren mahaian. Ez duela entzuten esaten  
dute.

Bizarrari tiraka baina besoa bularrean,  
garaitua joan da (puta bat ordainduko du  
bihar horrekin lo egin duela kontatzeko).

Beste hirurak, geroago, etxean, komunean,  
berberarekin pentsatuz masturbatuko dira (bihar  
kafetegira itzuliko dira kontatzeko  
guztiek egin duten konkista handi bat).

Eta neskak bere burua emateko agian

aukeratuko lukeen hark —batek daki— (ala izango  
da hau

begirada txunditua soilik sartzen duten horietakoa?)  
ez zuen ezer ere izan. Gehiegi begiratu  
eta bere bi lagun ergelen konpainiatik  
garaiz ihes egiten ez zuen jakin izan.

Luanda, 72/8/4

---

# Jesuiten elizan Luandan

Emakume beltzak hitz egiten du bazter ilunean  
eliza hain garbi eta zaharberrituan.

Lurrean eserita, zaharra, besoak irekirik

isiltasun-esaldietan bere gainean

zintzilik dagoen Kristo hil, geldi

eta isilarentzat. Zer esango dute biek?

Zein izango da zalantza nahasia,

hizkuntzarik gabeko intimitate larritasuna igarotzen  
dena,

beste arraza bateko buru antzinako horretan

eta batez ere, sibilek eta sorginek dakiten bezala,

seinalez baina esaldi argiez hitz egiten zuten

beste jainkoen buru horretan?

Espazioaren bakardade hutsean

non Erromak ibai luzeen, hondartza sigi-sagatsuen

eta sakan gogorretako goi-ordokien

argi lainoz eta galdaz zuritua

zuriz ilundu zuen,

nolako jainkoa asma daiteke ez bada

ez izatearen miseria-mina, ez bada hizkuntza librea

ez edukitzearena

gurasoengandik seme-alabengana?

Zein askatasun eskatzen du? Zein heriotza  
desiratzen?

Aldare nagusiaren aurrean ez al daude dardarka  
harlauza soilaren barruan

Paulo Dias de Novais horren hezurrak? Ez al diote  
baobabetako fruituek, arratoi zintzilikatuek bezala,  
hezur-muin lehorra oraindik karraskatzen,  
hautsa baino geratzen ez den herrietako  
erreketa eta suteen garretan?

Porto, 1972/8/24

---

# Daimon

Mandelstamm, Akhmatova eta Rilkek  
bertsolerroak diktatzen zizkieten ahotsak entzuten  
zituzten. Baita  
Valéryk ere lehen bertsolerro bati buruz hitz egiten  
zuen,  
hurrengoak hortik ateratzen zirelarik.  
Garai zaharragoetan demonioek  
(norberaren espirituak aingeruak bezalakoak  
ez hainbeste guardako ezpada belarrietako zomorro)  
sekretuak kontatzen zituzten horrela  
enigmak esanez besterik gabe. Zoriontsuak  
poeta haiek (oraindik ere badira)  
inoiz ez zeudela bakarrik sinesteko gai zirenak  
ezta bakardade izugarriaren ordu  
izugarrienetan ere. Sorbalda atzean  
espiritutxoak zegoen haiek laguntzeko  
erbesteratuen edo erailduen kalbarioetan,  
edo Duino aristokratikoetan biztanle,  
edo hitzaurre-egile milaka franko batzuen truke  
burua neke handiz eskainiz  
saiakerak idazteko *sur l'idée de dictature*.

Sokrates eta Goethe guztiak horrelako zerbait izan  
zuten,

beste batzuek geroago idazketa automatikoa izan  
zuten bezala.

Tristea da ez zutela tolesik gabe esan  
(salbu eta beren buruei gezurrak kontatzen  
zizkietenean) erabateko

bakardadean, gau ilunean

— San Joan Gurutzekoak eta poesiara emandako  
santuek

aipatuan, non haien ustez jasotzen baitzuten,  
ez da seguru eta ez dago baieztatuta nondik,

Goikoaren Bisita gorputz barruan —

ez ziela inork edo ezerk hitz egiten: ezerk ez.

Giza-isiltasunean hitz egiten zuten soilik  
izateari ukatzen zaion irudi bikoitzarekin.

1972/11/7



---

# [hi haiz bizi naizen lurra]

Hi haiz bizi naizen lurra.

Ezti, leun, samur eta nahikoa sendo  
hire beso zein hire hankek izan dezaten  
besarkatzen nauen amodioaren indarra.

Harria ere bahaiz lurraren antzera batzuetan,  
ertz horietan min hartzen dinat, zauri,  
baina goroldioz estalita hirekin izatearen  
zauri horiexek ditun freskatzten.

Eta zuhaitzen itzalak, loreak eta fruituak,  
nire keinu eta nire zaporera errendituak.  
Eta ur garden eta gurguriatsua  
munduan amodioaz soilik xuxurlatzen didana.

Hi haiz bizi naizen lurra. Ez paisaia,  
ez Ama Lur, ez baso eta mendien  
ninfa bahitua. Lur gizatiarra,  
bertan paratzen naun osorik eta betiko.

Londres, 1973/3/15

---

## [gatza ezagutzen dut]

Zure azal lehorraren gatza ezagutzen dut  
uda haragiaren negu bilakatu ondoren  
gaueko izerdian atsedena hartzen.

Edaten dugun esnearen gatza ezagutzen dut  
ahoetan ezpainak estutzen zirenean  
eta bihotza sexuan taupadaka zebilenean

Zure ile beltzen gatza ezagutzen dut  
edo horailena edo urdinduena kiribilduta  
distira urdinxkak dituen loaldi honetan.

Eskuetan geratzen zaidan gatza ezagutzen dut  
kresala hondartzetan pausatzen den bezala  
itsasoak jaitsi eta atzera egiten duenean.

Zure ahoaren gatza ezagutzen dut,  
zure mihiaren gatza, zure titiburuen gatza  
eta gerriarena aldaketan biribilduta.

Ezagutzen dudan gatz guztia zurea da,

edo nirea zugar, edo zurea nigan,  
maitale elkar lotuen hauts kristalezkoa.

Madril, 1973/1/16

---

# Distikoa

Oihuka ari den bizitzak ez du inoiz ezer esaten.  
Den-dena esatean oso isila da heriotza.

1938/7/6

---

# Monasterio-bizitzaren laudorioa

Behinola, pertsona bat mundutik baztertzen zen,  
hil-jantzia hartu bizirik zegoela eta fraide egin,  
bizitzak dena eman eta hilzoria zetorkiolako  
edo bizitzaren aurka borrokatzeari uzten ziolako  
inoiz ez baitzen ezer etorri  
(ezta hilzoriaren formaz ere gauzak errazte aldera).  
Gero, gogoak zerbaitez arduratu beharra duenez,  
pertsona bere arima salbatzen saiatzen zen,  
gorputza zigortu eta heriotzarako prestatu  
(istripu bat, jaio izanaren zori hutsez  
pertsona batek, baliabiderik gabeko garai hartan,  
beti prestatuta, bizirik egoteagatik zeukana).  
Erretiro errespetagarria zen, begirunez ikusita,  
bakardadea nolabait betetzen zuena,  
jendeak eta amodioak bizitza bete ez zuten moduan.  
Bakarrik egotea, baina giza beroak inguratuta,  
elkarbizitzak berez dakarren  
desabantaila eta deserosotasunik gabe,  
sentimenduetatik gehiegi zentzumenetara gutxiegi,

edo, egoera negargarria, maite dugunak nahi  
genukeen bezala  
usaintzen ez duenean: arrosa eta sexuaren arteko  
nahasketa bat,  
amodioak nola usaintzen duen apur bat irudikatuz

Gaur, ez dago mundu gehiagorik  
norbait bertatik baztertu ahal izateko.  
Mundua gugandik baztertu da. Eta bakardadea  
monasterio erraldoia da non,  
kalean, garraio publikoetan, ohean,  
ondokoei begiratzen diegun  
karmeldar oinutsek erakusten zuten sineste sendo  
berberaz  
klaustroan topatu eta elkar agurtzen zutenean  
esanez  
hil beharra zegoela.  
Minean, alaitasunean, atseginean, guztian,  
fraide laikoak bezalakoak gara, eta heriotza  
edozein modu ergeletan datorkigu gatzgabe.  
Eta gure izu begirada ez da ustekabean  
harrapatu dutenarena arima salbatua izan baino  
lehenago,  
arima salbu baitago mundua gugandik

erretiratu zenetik. Funtzionario publikoaren izu  
begirada da  
dakienean, erretiro urteak kontatzen dizkiotelarik,  
ez dela inoiz ordainketa orrietan egon,  
ezta funtzionarioen kidegoan erroldaturik ere,  
ez eta langabezi bulegoetako  
zerrendetan ere. Ez dute  
hilzoria izateko eskubiderik ere,  
sentitzen dena oraindik ere aspaldian  
sentitzen zen bezala eta dena justifikatzen zuena:  
bi gauzaren artean erabakitzekeo plazera:  
joatea ala geratzea, egotea ala alde egitea,  
edo jokatu eta galtzeko arima bat edukitzea.

1965/9/26

---

# Erroma udan

Nola moldatuko ziren aita santuak, kardinalak, jende hori guztia,

hau bezalako uda jasateko? Antzinako erromatarrek larrugorrian ibiltzen ziren edo ia-ia (herri honetan gehienek orain egiten duten bezalaxe).

Aireak, baita haizeak ere, palazioen artean ibilki, izerdia dakarte aldean, hainbeste non jendea izerditan dabilen

barrokoki eliz kupulatan.

Ai. Ez nintzen lehenago ohartu. Iturriak, jakina da asko direla eta eder-ederrak.

Baina ez nintzen lehenago konturatu edonon obeliskoak direla ugarien.

Egiptoarrak, benetakoak edo imitaziozkoak, ez dago plazarik

obelisko zero errauskararantz tenteturik gabe.

Inperioaren Erroma, edo hainbeste apaiz eta fraide eta mojena, obelisko irrikaz?

1971/6/26



---

## [Dom Fuas hil da]

Dom Fuas hil da, nire katua zazpi urtez,  
harro, erregezko, hotsandiko, ia hurbilezin,  
angora erraldoiaren dotorezia destainarian  
hauskara eta zuria, ile oparokoa,  
eta isatsa elezaharretako kasketaren luma  
bezalakoa.

Hala ere, bere orduetan, eta etxetik  
agertzen zenean jateko batez ere  
edo gu etorkor bisitatzeko,  
Guermantesko dukesaren antzera Swann hartzean,  
bazituen une xamurrak dena besarkadak,  
baina bertan behera uzten zituen azkar itzultzeko  
bere ibilera inperialetara, bere duke begiradetara.

Ez zuen inoiz beste katu bizitzarik onartu  
etxe honetan, berea ez bazen. Guztiek  
alde batera egiten zuten bera pasa zedin  
edo jan zezan, guztiak geldi  
urrutitik begira bere maiestateari,  
ez baitzen inoiz miauka ibili ezer eskatzeko.

Gaixorik zebilen, arazoak arazoan gainean,  
gorputzean eta ile oparoan  
zein buruaren itxuran nabari zitzaion  
zenbat umiliazio ezartzen zion oinazeak  
hain harrotasun handiari.  
Azkenik, era amerikarrean  
albaitariaren ospitalean sartu zen. Eta han,  
telefono dei batez, bakar-bakarrik, bakarti  
edozein gizaki bezala hemen, hil zela jakin genuen.

Desberdintasun bakarra, eta hobe da horrela,  
hiltzen den animalia izatearen izu giro horretan,  
bera gehiagorik ez ikustea izan zen. Zeren edo  
hiltzen baikara  
lehen hiltzen zen moduan jendaurrean,  
etxeko guziak, edo gorte osoa inguruan, edo  
hobe da inoren aurpegian ez ikustea  
— bereziki bizirik hain harroa zen katuaren  
aurpegian —  
bakarrik hiltzeak, mundu osoak lagunduta bada ere,  
beti uzten duen seinalea ez ezik,  
beste bakardade teknokrata eta higieniko hori ere,  
idazkari artatsu baten ahots atsegin eta

profesional bilakaturik ezabatzen gaituena.

Dom Fuas, hil zara. Ez dut esango  
lurra arin izan dakizula, zeren egia biribila baita  
existitzearen gorozkiak bertan  
hain ondo estaltzeko,  
katu ongi hezia eta zintzoa berez,  
trebetasun handiz zulatzen zenuen lurrean  
betiko lo egitearen abantaila ere ez duzula izango.  
Azken urteotan hainbeste heriotza nire inguruan,  
zureak ere axola du. Beste inork ez  
du zure izena izango, zu baino lehenago  
beste katu asko ere Dom Fuas izan ziren bezala.

1977/12/18

---

# [adituen eta poeten artean dagoen desberdintasuna]

Adituen eta poeten artean dagoen desberdintasuna  
da lehenengoek bizitza osoa ematen dutela muturra

sartuta gai batean

ea argitzen duten, eta poetek

liburu bat ireki, hiru orrialde irakurri, gainerakoak

gainbegiratu

(ezta guztiak ere) eta berehala dakitela gaiaz

besteek inoiz jakingo ez dutena. Horregatik

adituak (dena irakurri arren, ezer irakurri ez

dutenak)

amorratuta daude poetekin,

ezer irakurri gabe, dena irakurtzeko gai.

Txarrena da analfabetismoaz abusatzen duten

poetak badirela,

eta *gaya scienza*-ren izen ona zikintzen dutela.

1972/2/1

---

# Efeboak

Hamasei eta hogei urte bitarteko gazte guztiak  
ziren Grezian. Klamidea janzen zuten  
eta buruan petasoa eraman,  
feltrozko kapela zena, hegal zabalekoa.

1974/12/1

---

# Dorrea eta metrailadorea edo Freud praktikan

Bazen behin mutiko on bat.  
Mutiko bertutetsu on horietako bat.  
Haurra zenean, amak  
ez zuen ukitu, Edipo  
konplexurik ez sortzeko..  
Aitak ez zuen ukitu  
homosexuala  
izan ez zedin gero.  
Eskolan lagunek  
ez zuten ukitu, ezta  
berak lagunak ere,  
inork ez zezan pentsa,  
ezta beraiek ere,  
homosexualak zirenik. Mutikoak  
ez zuen bere burua ere ukitu  
lohikeriaz ez zikintzeko.  
Neskalagunekin, ukitzekotan  
“petting to climax” eta  
muxuekin bakarrik pozik, eskuak  
gutxi erabilia (etxean

gero galtzontziloak erantzi hatz puntekin  
eta dutxa hartzen zuen, ukitu gabe).

Neskalagun asko izan zuen. Egun batean  
metrailadore bat erosi zuen,  
kanoi luzeari punta koipetu,  
eta dorre batera igo zen (gauetz  
kupula gorriz argiztaturik zuena)  
unibertsitatean, ikasle  
zintzoenetako bat zen, eta  
hurrenez hurrengo balak eiakulatuz,  
bi sexuetao zazpi pertsona hil zituen, eta hogeita  
hamar zauritu.

Poliziak bertatik bertara  
tiroz hil egin behar izan zuen.  
(Hemeretzi urte besterik ez zuenez,  
esan ahal da asmatu egin zuela  
kontuekin, lotsa izugarria  
ematen zion amets hezeetan  
isuritakoa kenduta).

Eta benetan ez zuen inoiz  
inor ukitu, ezta inork bera ere. Zeren,  
heriotzaren arrazoiak argi izanik,  
ez baitzioten autopsia egin behar izan.  
Garbitu eta prestatu zuen ehorztetxeko langileak,

hankarteaz ere arduratu ez zenak,  
aurpegiera odolgabeari bizitasun pixka bat emate  
aldera  
makillaje gorri apur bat jarri zion begitartean  
eta karminak bizitu zizkion ezpainak.

1970 Urtarrila



---

# Manuel Bandeiraren heriotza

Gaur bakarrik, bere poesiari buruzko ikastaro  
batean eskola asko  
eman eta gero, bere poemak gainbegiratzean,  
izan dut, bat-batean, bere heriotzaren kontzientzia,  
orain dela urtebete baino gehiago, urrun, ozta-ozta  
albiste.

Ez da ohartzearen gauza balizko hori: harridura  
jakina

(eta inoiz errepikatuko ez denaren frustrazioa)  
hura eta haren gizatasuna berriro ez ikusteagatik,  
haren haur berekoiaren adeitasun sendoa,  
haren gorreria, egiaz ez baitzuen inor entzuten  
salbu eta bizitza edo heriotza. Azken batean  
badira miretsi eta inoiz ezagutu ez dudan ehunka  
poeta

eta ez nago oso seguru ere mereziko lukeen  
haiek guztiak ezagutzea: jasangarriak izango ziren,  
gizatasunez jasangarriak, Dante edo Camões?  
Ez: huts handiago bat aurkitu dut  
bat-batean. Hil zen. Ez du ezer gehiago esango,

ez du ezer sentituko guri jakinarazteko. Poetak  
jende guztia bezala hiltzen dira. Poesia  
gelditzen da, eta geroago hilko da, dena  
hiltzen den bezala. Baina gurekin dagoen bat  
hiltzea, zaharra izan arren, eta idatziko duen hori  
ez izatea gehiago ere, oraindik idazten badu: isiltzea  
— eta albistegietan jakitea isildu dela —  
heriotza da, lazgarria, ergela, zakarra.  
Berak bedeinkatu zituen mirari guztien amaiera.  
Laztura, geratzen den horretan aurkitzean,  
zenbat hil zaigun geratu den horren egilea.

1969/11/22

---

# [berandu da, oso berandu gauez]

Berandu da, oso berandu gauez,  
lan asko egin dut gaur, atera naiz, jendearekin hitz  
egin,

itzuli, musika entzuten ari naiz orain, izugarri  
nekatuta nago.

Izugarri, zehazki eta bere hutsalkeriarekin,  
nire nekaduraren neurria eman dezake hitz horrek.

Neka-neka eginda nago. Lan asko egin dudalako,  
geroago beste pertsonen interesatzeko  
ahalegin handia egin dudalako,  
pertsonez interesatzeko nekatuegi nagoenean.

Berandu da, goizago etzan behar nuen,  
aspaldi egon behar nuen lotan.

Baina esnaturik nago nire nekadurarekin  
musika entzuten. Leher eginda,  
ezgai pentsatzeko, ezgai begiratzeko,  
gutziz ezgai atsedena hartzeko ere nekearen  
nekez. Izugarrizko nekadura

bizitzaz, pertsonez, nire buruaz, guztiaz.

Bata bestearen atzetik erretzen ditut zigarroak hain  
nekatuta

egoteaz ernegaturik. Eta musika entzuten dut  
(César Franck-en sonata biolin eta pianorako  
zehazki, eta geroago *Wesendonck Lieder*-ak)  
nire burua disolbatzearen nekadura hutsean  
Brunilda bezala edo Isolda bezala  
inoiz onartuko ez dudan honetan:

*l'amor che move il sole e l'altre stelle.*

Ez dago inolako antzik nekatuta naukan amodio  
horren

eta, maite ez, soilik erre eta igarotzen den beste  
amodioaren artean, zeina

bizi naizen lekuan eta denboran disolbatzeaz  
oraindik nekatuago nagoen. Disolba daitezela andre  
horiek

printzesak zirenak edo walkiriak, nahi badute,  
betierekoan.

Nekatuta nago nire burua ez disolbatzeaz  
etengabe bizitzaren, edo pertsonen,  
edo neure buruaren edo guztiaren une bakoitzean.

*Qu'ai-je à faire de l'éternel? I live here.*

*Non abbiamo confusion.* Eta hemen  
hilko naiz guztiz nekatuta, gaur nagoen bezala,  
izugarri nekatuta.

1970/12/22